

HERNANIKO LANDARE INBADITZAILEAK

Ezagutu eta ezabatu!

Zeintzuk dira espezie inbaditzaileak?

Gurea ez den beste eremu geografiko batetik etorritako landareak dira. Landare hauek kopuru handitan, abiada azkarrez eta hainbat belaunalditan zehar ugaltzen dira, inguru berriaren oreka ekologikoa suntsituz.

Nola eragiten dute biodibertsitatearen galeran?

Habitat berriak kolonizatzean bertako landaredia ordezkatzeko dute. Honek habitat horiek sinplifikatzea dakar, bertako faunarentzako baliabideak murriztuz. Azken finean, ekosistema naturalen oreka ekologikoa hausten dute bertako landare eta animaliak kaltetuz.

Mundu mailan biodibertsitate galeraren bigarren arrazoi nagusia kontsideratzen dira.

Nola ezabatu etxeko landare inbaditzaileak?

Landarea sustraitik atera behar da. Aleak eskuz atera daitezke sustrai guztiak ateratzen direla ziurtatuz. Ateratako aleak poltsetan gorde lehortu arte eta zabortegira eraman behar dira.

Beste metodo bat landarea moztea da, baina landarea indartu eta ugaritu ez dadin maiztasun handiz egin behar dira mozketak. Mozketak landareak hazten jarraitzen duen bitartean errepikatuko dira. Moztutako aleak lehortzen utzi behar dira pila batean jarrita edo poltsetan bildu eta lehortzean zaborretara bota behar dira.



Crococsmia x crocosmiiflora

Krokosmia (*eus.*)

Jatorria: artifizialki lortutako hibridoa

Loraketa: uztaila-abuztua



Buddleja davidii

Lila (*eus.*)

Jatorria: Txina

Loraketa: ekaina-urria



Phyllostachys sp.

Banbua (*eus.*)

Jatorria: Txina eta Japonia

Loraketa: arraroa



Reynoutria japonica

Bambú japonés (*eus.*)

Jatorria: Japon, Korea eta Txina

Loraketa: abuztua-itaila



Cortaderia selloana

Panpa-lezka (*eus.*)

Jatorria: Hego Amerika

Loraketa: urria-abendua